

Onenaren pareko aurtengoa

Txotx garaiak irekiera data ofizialik ez badu ere, azken urteotan Astigarragan ospatzen duten ekitaldia hasi da nolabaiteko balio sinbolikoa bereganatzen. Sinbolikoa ez ezik praktikoa ere bada sagardogintzak Astigarragan duen garrantzia.

KATI SIMON EIZAGIRRE
ASTIGARRAGA

Aste honetantxe egin dute Astigarragan (Gipuzkoa) 1999. urtean sortutako sagardo berriaren aurkezpena. Aurkezpenaren osteko bazkarian Pedro Miguel Etxenike, zientzialari eta EHUko katedratikoa txiria atera eta «hau da Astigarragako sagardo berria» esanez eman zion hasiera hiru hilabeteko iraupena izango duen txotx garaia.

Astigarragako sagardogileen aburuz 1999ko uzta, oparoa izan arren, hasieran espero zen baino urriagoa gertatu da. Iazko udako lehortearen ondorioz urriaren hasieran uzta garaia iritsi zeneko galduta zegoen sagar kilo asko. Hala ere 4.760.000 litro sagardo ekoiztu dituzte Astigarragan. Erabili dituzten sagardotako sagarren erdia baino gehiago Euskal Herrikoa izan da.

Ekoizleen ustez aurtengo sagardoa urterik onentsuenetan lortutakoaren parekoa da. Aurtengoa sagardoaz gozatzeko urte egokia dela diote adituek. Usain gozoa eta zapore atsegina izateaz gain, lasto kolore bikaina du eta edan erraza da aurtengo sagardoa.

Sagardogileek argi utzi nahi izan dute sektoreak kalitatearen aldeko apustu garbia egin duela. Ahalegin handiak egiten ari omen dira hobekuntza teknikoak sartzeko eta ekoizleak profesionalizatzeko. Erronka nagusia sagarra eta sagardoaren kalitatea hobetzen jarraitzea da.

Garrantzi ekonomikoa

Eli Laburu Astigarragako alkateak dioenez astigarragatarrek ohore handiz onartzen dute herriak sagardoarekin duen lotura estua. «Gaur egun gure herrian dugu inguruko sagardogile kopuru handiena, 18 guztira».

Astigarragan sagardogintzak duen eragin ekonomikoa ere garrantzi handikoa da, produktioaren tamainak eta sagardogintzak erakartzen duen jende kopuruagatik. Hala ere, nahiz eta herriko jarduerarik ezagunena izan, ez da aberastasun gehien sortzen duena. Tamalez ez du lanpostu gehiegirik sortzen, familiarteko negozioak baitira sagardogintzari lotutakoak.

Azken urteotan sagardogintzaren hazkundea oso handia izan da Astigarragan eta herriko alkateak sagardoari etorkizun oparoa aurreikusten dio. Hala ere, ekoizleek oraindik kalitatearen aldeko lan handia egin behar dutela uste du Astigarragako alkateak, produktuen kalitatea hobetuz zein sagardotegiko giroa zainduz: «Alkohol gutxi edari fresko eta nahiko merkea denez etorkizun oparoa izango duela uste dut, baina ekoizleek zein administrazioak lan asko dugu egiteko», diosku Eli Laburu alkateak.



GIROA. Sagardotegietako giroa ere zaindu behar da bezeroa gustura eta eroso egon dadin.

Eperako
Aurrezkia

EUSKADIKO KUTXA



Interes bikoitza eskaintzen dugu.



Euskadiko Kutxan interes handiagoa eskaintzen dugu. Alde batetik, interes handiagoa erakusten dugu zure aurrezkiak non inberti ditzakezun hobeto aholkatuz.

Beste alde batetik, interes handiagoa ematen ahalegintzen gara zure ahalegina saritzeko pizgarri gisa. Horregatik, interesak bikoizteko 10etik aukera 1 duzu

urtarrilaren 15etik otsailaren 18ra bitartean dauden 5 asteetan. Egizu eperako ezarpen bat eta ezarpenaren zenbatekoaren azken zifra eta ezarpena egin duzun asteko ostiralean ONCEn kupoian saritzen den zenbakiaren azken zifra bera bada, interes bikoitza irabaziko duzu 6 hiletan zehar.

Beharrezko txartela duten 6 hilerako, urte 1erako eta 2 urterako ezarpenek hartzen dute parte. • Asteko zozketan epealdi horretan egindako eragiketak baino ez dira sartuko. • Ezarpen berriak bakarrik sartzen dira, ez berritzeak eta aldaketak. • Diruzko sari hau ondare-irabazitzat hartzen da.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena